


A vibrant, cartoon-style illustration of a jungle scene. In the upper left, a toucan with a large orange and yellow beak and a black body is perched on a branch. In the center, a young girl with long red hair, wearing a red dress and a yellow and blue feathered headdress, is sitting on a large tree branch. She has pink flowers in her hair and is looking towards the viewer. To her right, a small brown monkey is sitting on the same branch, looking at her. Further right, a blue monkey is hanging upside down from a branch, looking towards the girl. The background is filled with lush green foliage and large tree trunks.

MUNDUENEA
MUNDUKO IPUINEN ETXEA

CAIPORA

LABAYRU FUNDAZIOA





IPUINA ENTZUN



OUÇA A HISTÓRIA



www.munduenea.labayru.eus

© LABAYRU FUNDAZIOA. 2022

EDITOREA: LABAYRU FUNDAZIOA (ZIORTZA ARTABE, IGONE ETXEBARRIA,
AKAITZE KAMIRUAGA ETA BIOSNE ZARANDONA)
COLON DE LARREATEGI 14, 2. ESK. 48001 BILBO
WWW.LABAYRU.EUS

JATORRIZKO TESTUA ETA AHOTSA: LAYSA DIAS SANTOS

TESTUEN MOLDAKETA ETA AHOTSA EUSKARAZ: YOLANDA ARRIETA

ILUSTRAZIOAK: ENRIQUE MORENTE

MAKETAZIOA: BIKO KOMUNIKAZIOA

INPRIMATEGIA: GERTU

I.S.B.N: 978-84-19063-10-6

LEGE GORDAILUA: BI 01391-2022

LAGUNTZAK: EGITASMO HONEK BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAK JASO DITU.

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org, 91 702 19 70 / 93 272 04 47).



CAIPORA



LabayruFundazioa

HIZTEGIA VOCABULÁRIO

- Indigena = Indígena
- Oihan = Floresta
- Animalia = Animal
- Babestu = Proteger
- Ehiztari = Caçador
- Trikimailu = Artimanha
- Basurde = Javali
- Jai = Festa
- Askatu = Libertar
- Ospatu = Comemorar

Portuguesa latinetik datorren hizkuntza da eta, Portugalen ez ezik, munduko beste hainbat tokitan ere hitz egiten da, eta bederatzi herrialdetan hizkuntza ofiziala da. Herrialde horietako bat Brasil da: hortik dator, hain zuzen, ipuin hau.

O português provém do latim. Além de Portugal, se fala em muitos outros lugares, sendo língua oficial em nove países. Um deles é o Brasil, de onde procede esta história.





Munduko oihan tropikalik handiena da Amazonia.
A Amazônia é a maior floresta tropical do mundo.



Erraldoia da erdi-erditik igarotzen den Amazonas izeneko
ibaia ere. Bertan, animalia eta landare artean, hazi eta hezi
zuten Caipora, neska indigena.

Gigantesco também é o rio que atravessa a floresta:
o Amazonas. Lá, entre animais e plantas,
criaram e educaram Caipora, uma garotinha indígena.



Caiporak «Oihaneko Biztanlea» esan nahi du, tupi-guaraniz.
Horrela hitz egiten dute indigenetako batzuek Argentinan,
Bolivian, Kolonbian, Perun eta Brasilen.





Caipora significa “Habitante da Floresta” em tupi-guarani, falado por alguns indígenas da Argentina, Bolívia, Colômbia, Peru e do Brasil.

Caiporaren zeregina oihaneko animaliak ehiztariengandik babestea zen. Hainbat trikimailu erabiltzen zituen horretarako: arrastoak ezabatu, ehiztariei tranpak jarri... Eta, horretan, beti zeukan laguntzaile bere lagunik onena: basurdea.

A missão da Caipora era proteger os animais da floresta dos caçadores. Para isso, ela utilizava várias artimanhas: apagar os rastros, criar armadilhas para os caçadores... E, nisso, tinha sempre como ajudante ao seu melhor amigo: o javali.









Urtero bezala, Toré eguna iritsi zen, indigenen jaieguna. Egun garrantzitsua da eurentzat, baita gaur egun ere: euren hizkuntza, kultura eta lurraldea goraipatzen dituzte, indigenak izateaz pozik daudela adierazteko; eta inguruko herriei eskatzen diete errespetatitzatela.

Caipora etxetik irtetear zegoela, amak esan zion:

— Sasoiz etorri, arratsaldean Toré jaia daukagu-eta.

— Bai, ama.

Assim como todos os anos, chegou o dia do Toré, dia de festa para os indígenas. É um dia muito importante para eles, ainda hoje: exaltam sua língua, sua cultura e seu território, para expressar a sua felicidade por serem indígenas; e pedem aos povos vizinhos que os respeitem. Quando Caipora estava prestes a sair de casa, sua mãe lhe disse:

— Não demore, pois à tarde temos a festa do Toré.

— Sim, mamãe.

Basurdearen gainera igo eta, egunero bezala, oihanerantz abiatu zen neskatila. Animalia guztiak atera zitzaizkion bidera:


—Egun on, Caipora!

—Baita zuei ere!



Subiu nas costas do javali e, como todos os dias, dirigiu-se à floresta.
Todos os animais saíram ao seu encontro:

- Bom dia, Caipora!
- Bom dia a todos!





Berak egindako bitxiak oparitu zizkien animaliei, Toré eguna ospatzeko.

Para comemorar o dia do Toré, presenteou os animais com joias que ela mesma havia feito.



Lore koloretsuz hornitutako burukoa, tximinoarentzat; belarritako luma horia, kapibararentzat; lore koloretsuz egindako lepokoa, jaguarrarentzat.

—Eskerrik asko, Caipora! —esan zuten, erregaluak jaso ahala.

—Ez horregatik!

Um cocar com flores coloridas, para o macaco; brincos de penas amarelas, para a capivara; um colar de flores coloridas, para a onça.

— Muito obrigado, Caipora! — disseram, enquanto recebiam os presentes.

— De nada!







Nagiaren txanda heldu zen.

— Non da Hartz Nagi? — galdetu zuen Caiporak.

— Non egongo da, bada? Lotan!

— Lotan, oraindik? Ea, zer opari egingo ote diot nik alferrontzi honi? — hausnartu zuen.

Chegou a vez do Bicho-Preguiça.

— Onde está o Preguiça? — perguntou Caipora.

— Onde você acha? Dormindo!

— Ainda está dormindo? Vamos ver, o que eu poderia dar a este preguiçoso? — refletiu.



Caiporak aurpegia margotu zion!
Caipora pintou a rosto do bicho-preguiça!





Nagia, itzartzeaz batera, erre kara joan zen ura edatera.

— Ene bada! — oihukatu zuen bere burua uretan islatuta ikustean—. Hau bai aurpegi dotorea! Zeu izan zara, Caipora?

— Nor, bestela?

— Itzel dago! Mila esker, laguna!

— Ez da zergatik, Nagi jauna!

O preguiça, ao acordar, foi até o rio beber água.

— Meu Deus! — exclamou al ver seu reflexo na água —. Que bonito! Foi você, Caipora?

— Quem seria, senão?

— É ótimo! Muito obrigado, amiga!

— De nada, senhor preguiça!

Untxiaren txanda heldu zen. Baina gordelekuan, untxirik ez!
Ehiztari batek zeraman sarean.

«Gaixoa!», pentsatu zuen Caiporak. «Nola askatuko ote dut
nik txiki hori?».

Chegou a vez do coelho. Mas na toca não tinha nenhum coelho!
O caçador estava levando-o na rede.

«Coitadinho!», pensou Caipora. «Como eu vou libertar
esse pequeno?»





Plan bat bururatu zitzaion, eta halaxe azaldu zion basurdeari:
—Orbelez estaliko dugu horko zuloa ehiztaria barrura eror dadin.
Prest?
Basurdeak pozarren erantzun zion:
—Bota bosteko hori!



Ela elaborou um plano, e assim o explicou ao javali:

— Vamos cobrir aquele buraco dali com folhas para que o caçador caia. Está preparado?

O javali lhe respondeu maravilhado:

— Toca aqui!



Katapun-pan-pun! Amarruan erori zen ehiztaria.
Eta, arin-arin egin zuen ospa untxiak!



Catapun-pan-pun! O caçador caiu na armadilha.
E o coelho fugiu correndo a toda velocidade!





Animaliek ez zekiten nola adierazi euren esker ona.

— Kide bat gehiago aske! — oihukatu zuten —. Gora Caipora!

Os animais não sabiam como expressar o seu agradecimento.

— Mais um companheiro em liberdade! — gritaram —.

— Viva Caipora!



Jolasean igaro zuten goiza. Arratsaldea iritsi zenean,
neskatoak esan zuen:

—Jaia hastear dago! Goazen denok herrira!

Passaram toda a manhã brincando. Quando se fez de tarde,
a menina disse:

— A festa está prestes a começar! Vamos todos ao povoado!

Denak ari ziren korroan dantzari eta kantuari, lastozko gonez, lumazko burukoez eta animalia-hortzez egindako lepokoez, goitik behera apainduta:

—Etorri! —esan zien Caiporaren amak.

Eta, hala, indigenek eta animaliek, elkarrekin ospatu zuten Toré jaia, guztiak oihaneko bizikideak eta bertako hizkuntzaren, kulturaren eta lurraren babesleak zirela ez ahazteko.

Todos dançavam e cantavam em roda, enfeitados de cima a baixo com saias de palha, cocares de penas, colares feitos com dentes de animais...

— Venham! — disse-lhes a mãe de Caipora.

E assim, os indígenas e os animais comemoraram juntos a festa do Toré, para não esquecer que todos eles viviam juntos na floresta e eram protetores da sua língua, da sua cultura e da sua terra.






Munduenea. Munduko ipuinen etxean hamar ipuin batu ditugu, gure artean bizi diren kultura ezberdinetako hiztunei jasota. Bilduma 6-10 urte bitarteko umeei zuzenduta dago. Inguruko kultura eta hizkuntza aniztasunak dakarkigun aberastasuna ipuinen bidez erakustea da helburua. Jatorrizko hizkuntzan eta euskaraz entzun eta irakurri ahal izango dituzu. Munduko ipuinen etxera sartu nahi?

Munduenea. Munduko ipuinen etxea é uma coleção de dez histórias, de outras tantas culturas que convivem no nosso entorno,

direcionado a meninos e meninas de 6-10 anos. Através das histórias pretende-se mostrar a riqueza que nos traz esta diversidade de culturas e línguas. Entra na casa das histórias e descubra-as tanto em seu idioma original como em euskera.







LabayruFundazioa